

IBAI-ARTE I. ARGAZKI LEHIAKETA

ARRASATEKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUEN ARGAZKI LEHIAKETA

▪ OINARRIAK:

1. Antolatzailea:

Ibai-Arte, Arrasateko Merkataritza eta Zerbitzuen Elkarteak antolatzen du.

2. Partehartzaileak:

18 urtetik gorako edozein pertsonak parte hartu ahal izango du (18 urtetik beherakoek guraso edo tutorearen baimena beharko dute).

3. Gaia:

Lehiaketara aurkeztutako argazkiek Arrasateko Merkataritza eta Zerbitzuak izan beharko dituzte gai moduan.

4. Argazkiak aurkezteko prozedura:

- Argazkiak 2010eko ekainak 7tik 28ra bitartean aurkeztu ahal izango dira.
- Partehartzaile bakoitzak gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu.
- Argazkiak JPG eta paper formatuan bidali beharko dira, 24 x 30 cm tamaina izan beharko dute.
- Argazkiak honako helbidera bidali beharko dira: Nafarroa Etorbidea, 17, 20500 Arrasate. Kartazalean, Ibai-Arte Argazki Lehiaketa jarri beharko duelarik eta barnean igorlearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta argazkien izenak agertu beharko dira.

5. Epaimahaia:

- Aurkezten diren argazki guztiak www.ibaiarte.com web gunean ikusgai egongo dira eta edozeinek bozkatu ahal izango ditu web gunearen bitartez uztailak 1etik 15era bitartean, pertsona bakoitzak behin bakarrik bozkatu ahal izango du.
- Argazki bozkatuenak Harresi Aretoan egingo den erakusketan ikusi ahalko dira uztailak 19tik 24ra bitartean.

- Epaimahaiak azken irabazleak hautatuko ditu. Epaimahaia Ibai-Arteko zuzendaritza batzordeko kide batek eta Ibai-Arteko bazkide diren argazkilaritzako hiru profesionalak osatuko dute.

6. Sariak:

- 1. Saria: 500 € Ibai-Arteko bazkide diren saltokietan erosketak egiteko
- 2. Saria: 300 € Ibai-Arteko bazkide diren saltokietan erosketak egiteko
- 3. Saria: 200 € Ibai-Arteko bazkide diren saltokietan erosketak egiteko
- www.ibaiarte.com web gunearen bitartez argazkiak bozkatzeko dituzten guztien artean 100 €ko hiru sari zozketatuko dira Ibai-Arteko bazkide diren saltokietan erosketak egiteko.

7. Eskubideak:

Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak Ibai-Arteren esku geldituko dira, egoki deritzon jarduera eta formatuan argitaratu ahal izateko, beti ere irabazi asmorik gabe eta egilearen izen-abizenak aipatuz.

8. Onarpena:

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar ezinbestean eta agertu daitezkeen edozein ustekaberen aurrean antolakuntzak erabakiko du, erabaki horren aurrean ezin izango delarik apelatu.